

GAZTETXEEN AURKAKO ERASOEN AURREAN GAZTEOK
ANTOLAKUNTZA+AUTOGESTIOA
DELITO DE ATENTADO CONTRA LA AUTORIDAD?

-Gazteon presentziak beldurtzen ditu? Gure proiektuen aurkako prentsaurrekoan presente egotea intimidazioa al da?

-Polizia gaztetxearen inguruetatik, edota udaletxetik armekin ibiltzea ez al da intimidazioa??

DELITO DE DESORDENES PÚBLICOS?

-Leku publikoa izan beharko lukeen udaletxeko eraikinean sartu nahi izatea al da delitua?

DELITO DE COACCIONES?

-Prentsaurreko bat entzun nahi izatea edota gure iritzia eman nahi izatea, prentsaurrekoa eragozte da?

-Eta prentsaurreko bat gaztetxearen aurrean eta gaztetxearen aurka egitea, zer da?

DELITO DE AMENAZA?

-Zeri deitzen diote ba, meatxua?

-Honelako delito gogorak leporatzea eta gaztetxearen aldeko mugimendua kriminalizatu nahi izatea ez al da meatxua?

...

Ba hauek dira, 2005-XII-23an Partido Popularrak gaztetxearen aurkako prentsaurreko batetan gure ahotsa entzunarazteagatik alderdi honek hainbat gazteren aurka jarritako salaketan agertzen diren delituak.

Aipatu beharra dago, salaketa honen asmotariko bat gaztetxea eta gazteak kriminalizatzea den arren, PNVren eta alkatetzaren kontra egitea ere haien asmoa badela, poterea lortzeko darabilten estrategiaren baitan kokatu daitekeelarik.

Hala ere, ez da PPa gaztetxeak erasotzen dituen bakarra, Udal gobernuak berak (PNV-EA-IU alderdiek osatua) urteak daramatza gaztetxearen eta gazteon kontra egiten

-desalojoa aginduak ematen

-Polizia armatua gure aurka bidaltzen...

Eta gaur egun ere berdin darrai, polizia gaztetxera bidaliz, argia ebakiz...

Baina gazteok badakigu proiektu hau guztiz zilegia, aberasgarria eta beharrezkoa dela. Eta noizbait ikusteko aukera egongo dela.

Gazteok autogestioaz, lortuko dugu!

Herri BAT, Gaztetxe BAT!!!